


AZKEN AURREKO IXTORIOAREN KRONIKA BAT

JOSE MARI IZAGIRRE



Gabierrota, 1973.

Orain dela berrogei eta piko urte jaió nintzela Gabierrotako Kaminero etxean. Behar bada horrek behartu nau folio bat edo bi idaztera, "Laguntasuna"ren hasierako garaietatik gaur arteko laguna denaren presioak onartuz. Nire barrenean lo zorroan nituen aspaldiko kontuak gogoratzen saiatuko naiz. Garai haietako ume/gazte baten ikuspegi soila izan nahi duela adieraziz, ikerketa lan bat egiteko asmorik gabe.

Ondo ulertuko duzuen bezala gaur egungo Gabierrotak eta orain dela berrogei urtekoak ez dute antzik ere. 1950garren hamarkadan hasten da eraikitzen gaur egun ezagutzen dugun Gabierrota Auzoa. Ordura arte, Nafarroako ibilbidean, Santa Klarako Zubitik hasi eta Gasolindegi arteko tartean kokatuak ziren zeuden etxe guztiak eta ez zuten "auzo" izena hartzeko garrantzirik. Dozena bat etxe eta ehun bat bizi lagun monjak aparte.

Salbatore eta Fanderia aldeko lau edo bost baserri, gaur egun ezagutzen ditugun tokian zeuden.

Batek baino gehiagok galdetuko zuen honez gero, zer arraio zegoen ba gaur arteko "auzo" bezela ezagutu izan dugun tokian.

Ba, ibilbidea eta ibaiaren tarteko eremuan, batetik, Urangatarrek egurra lantzeko zuten fabrika (bere azken arrastoak auzoko garajeak egiterakoan galduak). Bestetik berriz, Urangatarren mugetatik Gasolinera aldera, Amerikanoaren baratzta eta ondorengo etxeen atzekaldean, zabortegi zen lurralde handi bat. Lurralde esaten diot, zelai landua ez zelako, baina prailtako eskoletan ibiltzen ginen ikasleek makina bat izerdi ateratakoak gara futboleko baloian atzetik. Edozein erara, zabortegiara ere maiz joaten ginen "txatarra" eskuratzaera, txanpon batzuk

lortzeko asmoz, orduan ere gaur baino lan gehiago egon arren ez bait zen txanpon jario handirik.

Bestalde, ibilbidea eta trenbidearen tartean, Papeleraren egur tokia azaltzen da, Pakea etxearen pareraino. Larre eta Astibiatarren etxeen atzekaldeko tartean marmoleriko pabeloia dago, eta baita iturrirainoko bide zior bat; iturria, Gabierrota etxearen atzekaldean zegoen. Nola nahi ere marmoleriaren parean, ia trenbide azpian, karobi zahar bat ere aurki zitekeen.

Gaur egun, trenbidealdeko etxe haietatik, kamineroena bakarrik geratzen da zutik. Papelerak toki gehiago behar zuela eta, denak bota zituzten, marmoleria barne.

Behar bada gehiegi luzatu naiz hainbeste deskribapenekin, baina ondo iruditu zait, beste xehetasun ugari azaldu gabe gelditzen bada ere.

Goazen ba, beste kontu batzurekin. Deskribatutako etxe multzo haietan bizi ginen gazteak, neska-mutilak, ez ginen eskolatik kanpo kaleko gazteekin gehiegi ibiltzen. Marmoleria edo Fanderia aldean pasatzen genituen gure momentu atseginak. Bizikletan, arrantzan, igeritan, futbolekin eta abar. Neska mutilak elkarrekin ginenean, beste joko motak aproposagoak ba ziren, hala nola: txingloak, txurrutaina, potebule, kromoak, kanikak, txapak eta beste garaiko entretenimenduak.

1950garrengo hamarkadaren hasieraren inguruan Uranga anaiek hiru sotoko etxea eraikitzen dute, gaur egun Eliza kokatzen dena. Larzabalen ere etxeak egiten dira, eta bertakoekin hartu emanetan jartzen gara. Futbol partidu bat edo beste jokatzeko dugu hangoen aurka. Hamarkada honekin jarraituz, erditik bukatu aldera arte, Lasa anaiek ekiten diote etxegintzari, Tejadaneko sototik hasita. Honek eragiten du beste gazte oportazio berria eta Larzabalgoekin batera, mutil koadrila bat sortzen da.

Erreterian beste toki askotan bezala, auzo eta kale batzuk beren jaiak egiten zituzten. Behar bada horregatik, gazte koadrila hartan ere horrelako burutapenak egiten hasi ziren. Jai asuntxo honekin, Ernestoren izena azaltzen da. Gu baino pittin bat zaharagoa da eta jaiari forma ematen hasten gara denon artean.

Eguna erabakitzeak ekarri zituen bere eztabaidak, azkenaldera Pilareko edo Karmengo Amabirginen egunak azaldu ziren. Gaur egun enkueta egingo zala ziur nago baina orduan, emaku-

meen artean Karmen izena ugariena zelako edo zenbait arrantzaile edo portuario geure artean bizi zirelako Karmengoa aukeratu genuen.

1960 garren urtea izan liteke auzoko jaien haiserako urtea. Hurrengo urtean egin zirela ziur. Gaur eguneko jaiak baino apalagoak izaten ziren noski. Auzotar, tabernari eta hasierako zenbait dendek diru laguntzak, ez zuen oso urrutira joateko biderik ematen. Meza Monjatan eta dantzarako musika goizeko ordubiak aldera arte Tejadaren aurrean. Hortik aurrera gauza gutxi, umeentzako "rompepucheros" eta horrelakoak.

1961garrengo auzoko Karmen jaietako xelebrekeri bat. Musika talde bat kontratatu genuen, eta hiru edo lau musikalariren artean, bat itsua. Tabladoa, Julioren taberna aurrean, eta eguraldia oso seguru izango ez zenez, babesteko toldo eta guzti. Ekaitzaren indarragatik edo seguruaski toldoaren egitura kaskarra zalako, hor etortzen da lurrera montajea musika hasi orduko. Ondorengoa pentsa dezakezue, batzuren garrasiak beste batzuen algarak. Musikeroak erreskatatu eta Julioren tabernak goi aldean zuen egon lekura igo eta han jarraitu zuten/genun juerga. Gazteek alkoholarekin ez genuen esperientzi handirik, baina egun hartan bataio antzeko zer edo zer jasan genuen gazte koadrilak. Eguraldia, musika, itsua, eta jaietarako jasotako diru apurren azkenak. Txatxatxa zegoen orduan modan, eta Esperanzaren letra eta doinuak errepikatuaz, barrendik bustitzen ginen Tximuaren edari transparente eta gozoarekin. Bukatu ondoren toldoa jaso eta tolestatzeko egin behar izan genituen saioak ez ziren makalak izan. Koadrilako batek baino gehiagoak ez zuen horrelako eradirik urtetan probatu.

60garren hamarkadaren erdialdera hasten dira biltzen auzoko zenbait guraso, auzoan azaltzen hasten diren beharri aurre egiteko. Bilera hauen eraketaren ondorio bezala 1968garren urtean eta elkartea sortzeko zenbait bilera egin ondoren Auzo Elkartea sortzen da eta Laguntasuna jartzen zaio izen bezala.

Jakin, badakit, hogeitabost urte hauetan zehar, zenbait krisialdi jasan dituela Elkarteak, parte hartzeko jende eza eta abar. Baina dudarik gabe 25 urte betetzen ditugun momentu honetan eta ikusiaz epe horretan auzoak izan duen aldaketa, benetan eskertzekoa da garai hartako auzokide batzuk eman zuten aurrera pausoa. Berarentzat nere oroimenik beroeana.

